

Zakur txikia, zaunkalari

Erronka asko jotzen duen gizonak ez du indarririk. "Etxean, nik agintzen diat" dioenak ez du etxean agintzen. "Nik zeukat bara" dioen alkateak ez du herrian agintzen.

Horregatik erabiltzen ditu herriak esatera hauek hitzetik hortzera: "zakur txikia, zaunkalari", "Horrek erronka asko, fulamentu gutxi", "Mingainean bakarrik duk hik indarra".

Bakarka gertatzen zaigun hau, taldeka ere berdin gertatzen zaigu. Elkarbide batzen beharra sumatzen dugu euskaldunok. Herri txikia denez gero indarra erakutsi nahi luke beste herrien aurrean. Indarra erakutsi behar bait da hemen aintzakotzat hartua izango bada.

"Lehen gutxi eta orain zatituak gainera" entzuten da nonahi eta noiznahi. Har gaitzo hori daramagu euskaldunok baruan. Talde gehiegi omen ditu Euskal Herriak gauza onerako.

Euskaldunak beti izan du talde herriak sortzeko gaitza edo bertutea. Beste ezer sortzerik ez zegoenean erlijio taldeak egiten saiatu zen. Gure gogonekoak dira Aldabalde, Amundarain, Goikoez, Agirretxe eta abar. Inork ez du, noski, sortu Loiolako Inaziok bezain handia eta indartsua. Garikoitz eta Lavigerie famatuak sonarik ere ez dute hartu.

Orain, zorionez, beste haize mota askok jotzen du Euskal Herrian. Haize mota asko behar du gizonak biziko bada. Haize nahasien artean gogortzen da.

Baina gatozen harira. Talde gehiegiren gaitza ala talde ahulen gaitza du Euskal Herriak? Talde asko izatea ez da txarra. Talde ahulak izatea da txarra. Talde desberdinak behar dira elkarbiderako, baina talde indartsuak. Gure artean bada elkarbiderako ametsik eta gogorik, baina amets huts dirateke talde indartsurik ez den bitartean.

Talde indartsuak bakarrik dira elkarbiderako gauza. Indarririk ez duena sumo eta iduripen txarrez josia dago. Hori da indarririk ezaren ezaugarriak nabarmena.

"Gaitzoa bethi da gibel-beldurti eta goganbeharitsu" zioen Axular handiak. Gaitzoa beldurti eta fidakaitz dela, alegia, horixe gertatzen zala nortasunik ez duen gizonari eta taldeari.

Beldurti eta goganbeharitsu da ahula. Horregatik da zaunkalari. Ostikoaren beldurrez egiten du zaunka. Zakur txikia urrutitik hasten da zaunkaka, orduan da ausarta. Inesi doa norbait hurbiltzen zaionean. Zakur handia bertatik bertara da haserre eta ausarta.

Besterengako sumo txarrez beterik den gizonak besteak besteak gutxiago oten den kezka eta ueste ditu. Goganbeharitsu eta fidakaitz den taldea beste taldeak baino ahulegoa oten den sumoz joa dago.

Indartsua denak ez dio inori beldurrik. Indartsua denak berriaz behar denean bakarrik aaztzen ditu bere indarrak. Indar itxurak eginez ari denak indar gutxi ohi du. Apustulari onak ez du behin ere behar baino indar gehiago erakusten.

Beste taldeekin harremanik eta itunik nahi ez duenak, erronka asko, baina indarra eta nortasuna gutxi.

Nahitaezkoa zaigu elkarbideratzea. Lehenbait lehen behar ditugu elkarbideak. Baina horretarako, lehenik, gizon eta talde bakotzak indartu behar du. Bienbitartean elkarbidea amets polit bat basterik ez da.

NIK IKUSI DUT IKUSTIKOR

«Galizia peninsulako hegalean galduta dagoen lurralde hori, ahazturik daukagun lurralde pobre hori, mendikate eta itsasoek mugatzen eta baztertzuten duten herri hori, gure kulturatik al bizi da oraindik, hein handi batean».

Horrelaxe idazten du Urta-rileko «Cambio 16» ale batetan, Jorge Reig jaunak zaragozati, «Cuadernos para el diálogo»-ko «Manifesto para la supervivencia de la Cultura Gallega» lanari erantzunez.

Manifestu horretan, Galeko Kulturak iraun zezan eskari batzuk egiten ziren: Irratja eta izparringiak % 50 galegoz, Conpostelako Telebisioak 2. ordu egunero galegoz, Irakasitzailea galegoz mailakaturik, Portugalderekin harreman gehiago, etab. Jaun horren iritziz, eskari guzti hauk herrialde hori galegoz basteritu eta aldentzeko basterik ez dira, munduko herri guztiak hizkuntza mugak gaititu nahiz dabilenean, galegoek, oster, bermeak sortzen.

Azki horren barnean ez da dago Espainia eta herrialde horren arteko harremanen

hautsi nahi bat basterik (Katalunian jazo ei den bezala).

Galiziak gaurko beharrezko ei du bere kultur eragariak asetzeko, Espainiak (gastelania, alegia) ematen duen garbi eta ugarietatik edan. Horra hor jaun horren iriztia.

Eta ez jauna, ez! Nire uestez herri guztiak dute beren kultura, aurreratua edo atzeratuagoa, baina kultura. Alemaniak bere kultura du eta Venezuelako Motiloiak berea, biak guztiz ezberdinak, bizerak ere halakoxeak dira eta. Lagundu egion behar zaiela? Dudarik ez. Baina geurea ezaririk gabe berriena lantzen eta aurrera eramaten.

Zuk diotzen eta defenditzen duzuna herri zapalketa bat basterik ez da, inperialismo kultural bat. Utz egiozue Galegoei galegoz beren kultura lantzen, arazoak konpontzen eta gainerakoak aurrera eramaten, gatzelauei berenean, katalani heurenengan, zeren batu nahi badugu (beharrezko balta) borondatez batuko gara Espainian, European edo horrelako batetan.

JOAN ANTONIO A.

EUSKAL LANGILERIA: SALBUESPEN EZ, BEREZITASUN BAI

Mila bider esana dena, berresango dugu, inorri ahanitz ez dakion edo. Euskal gizarteak: gizarte berezi bat da. Hau ere ez legoke esan beharrik: langileria gizarte horren baitan kokatzen dela, alegia.

Langileria, sozial klase berezi baten gisan, taxuturik dago. Taxupen honen barne araudiak, aldi, bere klase izate horren bidez egituratzen dira. Araudi hoik zer diren argi ez badago, hara bere azalpen labur bat: ekonomia, politika, ideologia eta beste egituren finkapenak, langilariarekiko harremanetan, klase horren amia eta forma berak itxuratzen eta zertzen du.

Zer adierazi nahi du gurek hemen? Zera, alegia. Gizarte batetan, edonon eta beti, beste klaseak bezalaxe, langileria, bere barnetik xehetua ageri da. Bere klase izatearen munitik, beraz. Hor bai daude, egon, klase gisan halakotzen edo honelakotzen duten elementu ekonomiko, politiko, ideologiko eta abar.

Metodo oro, zinezkoa bada, gauzak beren barne munitik ezagutzen hasi ohi da. Aldez aurretik, halaz gaituz badakigu, gauza bera baldintzapen zabalean hedaturik egoten dela beti. Baina horrek ez du batere eragozpenik jartzen, abia da batetan, gauza bat ikergailu gisan bere barnetik aztertzen hasteko. Hauxe da orain arte esan unahi genuena, hots, euskal langilariaren egoera eta izaera zertan den jakiteko, ez dugula nahitaez, zentzu batez, euskal gizartearen testuingurutik abiatu beharrik.

Zentzu honetan ihardunaz klase berezi honen azalpena egiten dugu, baina eginpide hori «kapitalist gizarte» modulu orokor bat bezala hartuz, ez, hortaz, «euskal gizarte kapitalista» mugatu eta jakin baten arauz. Horrelako atzerpideetan, esango genuke, euskal izaeraren muina ez dela kontuan hartzen. Zilegi ote atzerpide hau?

Jadanik bati baino gehiagori, sarritan bezalatsu, zera bururatuko zitzaion: metodo mota hori faltsua da, zeren ez baitu «langileria konkreturik» aztertzen. Edo zera ere esan dezake; metodo hori «abstrakua» da. Hortaz, oharbeto bat egin nahi nioke, halaokori. Lehen kalkulazio hori, metodoaren faltsutasuna salatzuz datorrena, ez da xuxena. Ez dago, berez, kapitalist gizartearen eredu gisan munduko leku gehienetsuetan bizirik datzanez, eredu hori modu orokor batetan ikuspegiatzeko eragozpenik. Ikustapen horrek, jakina, ez digu «langileria konkreturik» bere zehaztasun sakonean azalduko. Baina, bai, eredu gisan dituen bere ezaugarri nagusiaren zertan diren ikusaraziko. Horregatik bada, metodo hori ez da, metodo faltsu bat. Nahik bada, metodo abstratu bat bai. Aztertzen den eredu, abstratu tankeran finkatzen denez. Haatik, or-

dea, abstratu tankerak ez dio faltsutasunik halabeharrez itsasten.

Euskal langileria ikuspegi hortatik aztertze hori, areago joanaz, beharrezko gauza da. Bego, halarik ere, hortaz esana dagoen horretan. Eta aipamen labur bat basterik ez izan arren, beste ikuspegiaren agerpena egin dezagun.

Haseran bertan finkatutik utzi da: euskal langileria gizarte berezi batetako langileria dela, hain zuzen. Hemendik abiatuz, batipat, azpimarkatu nahi den hauzia hontan datza: euskal gizarte eta langilariaren arteko harrema nolaz ematen den. Nahiz ekonomia nahiz politika nahiz kultura mailan, garbi dagoenez, langileria hau gizarte jakin horren batera bizi da. Baina inozokeria bat baizik ez da, bizitzaren harreman hoik langilariarentzat axalean ematen direla pentsatzea. Ba, esate baterako, hizkuntza edo kultura mailan euskal ezaugarriak gizarteko zenbaiti bai, baina, langileria bere izatearen funtsean ukituko ez balute bezala. Kasu honetan, «euskal langileria» aztertu nahi da bere izaera berezian. Gizarte jakin batetako, langileria jakin baten gisan, hortaz.

Zorizagtoz, euskal langilariari diote estrategik berezia ukatzen beren guzti horik, berezitasunik ez dute ikusi ere egin nahi. Langileria bere baitan daraman berezitasun ukazena, gizarte jakin batetako ereduari funtsez atxikia dagoenez. Bada beste nahasendurik ere, agian. Pentsatzeko gauza da beste horietaz, langilariaren aldeko enpeinetan ez dutela berezitasun hori hauteman nahi, zeren berezitasuna hori salbuespen bat bezalaxe hartzen dute eta. Euskal langilariaren izaera, jakin bezate, ez dela salbuespen bat, baina bai berezitasun bat. Jakin dezatela ere, aurrez den beren bezala aurkeztuz, marxismoak begien aurrean jartzen dien irakaspen bat dela, zera: munduan den oro, noiz nahi eta beti, batasun konplexu bat baizik ez dela, hots, berezitasunez osaturiko batasun bat.

Diogun bukatzeko, hemen langilariari dagozkion euskal ezaugarri hoik funtzezko izanik, klase mailan finkatuak daudela. Ez, euskal langile, euskal gizarteko langileria den aldetik erantz dakiokeen ezaugarri gisan soilik. Euskal izaera, egitur orotan, klase bezala definitzen denean ere bada eta, euskal gizartearen muin eta mami denez gero. Beste honela adierazi nahi genuke, argiago gura dedin: euskal langileria berak funtsetan diola, besteak beste, gure gizarte honi bere euskal ezaugarria.

Joxe M. ODRIOZOLA

Denot bat

Batasunarena beti izan da komeria Euskal Herrian. Izenaren ere ez dugu batasunik: euskaldun, eskaldun, eskaldun; euskara, eskuara, euskera eta beste.

Forma da gutiena. Batasunezko esanahirik ere ez du gure izen horrek. Arratsalde eder bat pasa nitzun Mauleko Gazteluan, duela urte pare bat, xubertoraz jator hari ezin konpreniaraziz, han geunden zegamarrok ere euskaldun gizona. Zegamarrok asko dibetitu ziren. Xubertorak, ueste dut, gau hartan amets gaiztoak ibiliko zituela, buia nahastuta. Ni neuk, historia tristet horrek lehenengo aldi dibertitu ninduen.

Batu eta elkar hartu behar dugula, esan eta esan ari gara denok.

Komeria bat.

Ezertan batasunik entselatu den guzietan, lehen baino zatiketa gehiago lortu da.

Aspaldikoa da batasunaren leioa. Beti diferentea...

Jaun Konte Peñalaroko harek «hirurak bat» nahi zuen.

Karlista garaian «laurak bat» nahi zen.

Kanpionek eta «zazpirak bat».

Oraintsu eta oraindik 4 + 3 = 1.

Batasuna zer den ikasteko ere, ezin batu.

Beti zen zerbait, beti ezer ez. Horra, orainxe, euskara batuenaren zertan dabilen. Gaizki ahal dabil? Ez, oso gaizki ez. Baina hobeto ibil zitekeen, asko kosta gabe. Eta politikarik ez ditzut aipatuko, guk basapitiak berak lotsatuko genituzke ta.

Batasuna, guztion uestez, hain premiazkoa dugulakoxe, ez genuke inork errazegi aipatu eta eskatu behar. Izan ere, batasuna beti beste eskatzen diegun zerbait da. Nik neuk, batasuna eskatzen zenean, makina bat aldi pentsatu behar izan dut: hobe genuke batasun gutiago...

Ez naiz orain latinezko jakituria

ezaunak berresaten hasiko: beharrezkoetan batasuna eta ez dakit beste zeintzutan askatasuna. Batasunik egiteko askatasuna beti behar da. Izpiritu askatasuna. Guk ez dugun hori.

Gauza askotan batasun gehiagorik ez, gutiago beharko genuke. Pentsamentuan, esate baterako.

Pluralismoa ez da bat fededun eta beste fedegabe izatea. Bat garbizea eta beste mordillozalea. H zale eta h-ren kontrario. Antinomia batatasun hutsak dira. Eskuineko eta ezkerreko bi belarriak bezala edo. Pluralismoa, bat Ama Birjinaz arduratzea, beste mitralarekin ibiltzea, hirugarrenak Babiloniako ruinak aztertzea eta lau garrena saguzahar prejitzailek izatea, hurrengo Sibiriaiko insektoetaz espezializatzea, norbait meteorologian aritzea, inork pingulnoak estudiatzea eta Sandiak sandaliak egitea litzateke, elkarrekin akordatu gabe. Pluralismoa belarri, begi, sudur, okotz, hagin izatea da, ez denak belarri, eskuineko hala ezkerreko. Gaur, benetan interesgarri eta aberasgarria, ez da Marxen mila ta hamalagarren interpretazioa dakarrena. Eta bai, antiojueen historia, botolen funtzioak edo Bilbo gizonen gorbatu korapiloak xehexeki eta umorez aztertuko lizigikeena. Hori litzateke betiko eskematik benetan irizteza eta ez betiko eskemei buelta ematea bakarrik.

Baina, hortarako, betiko eskema haletatik benetan libre egon behar da. Libertatea behar da.

Batere interesatzen ez zaiguna gori-gori interesatzen zaigunean, orduan, batasunak ere zentzu bat izango du eta posible izango da. Diferentziak egiazkoak direnean, ez kontrariotasun hutsak.

Zerenta, orduan, libertaderik aski dugunean geure baruan, kanpoan ere izango bait dugu. Ta diferentziak benetakoak direnean, izpiritu libertate hori ere badugurik, laster oharituko gara, diferentziek elkar osatzen dutela.

Joxe Azurmendi

reun ARGIA

JABEA:

Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoek.

Burlada, Kale Nagusia, 50-1

Donostia, Okendo, 22

Telf. 41-95-88

Ondezkaria: Kaletano Ezeiza Iturriza

ARPIDE SARIA:

Barraun 400 pezeta

Korroko batasunetako herrietan 620 pezeta

Azterrietako bes. te herrietan 460 pezeta

Airez Aldez aurretik galdetu

Salmenta (ale bakoitza) 10 pezeta

Moldiztegia eta Idazkola:

«Gráficas Navas»

A. Adoain, 1. IRUINEA

D. L.: NA. 80-1963